



Idazki honen bidez dei egin gura deusut 2012ko urriaren 22an arratsaldeko 19:00 etan egingo dan Bilkuran parte hartu daizun, orri honetan agertzen dan GAI-ZERRENDEA aztertuko dala.

Modu berean adierazo gura deusut etorri ezin badozu, aurretiaz jakinarazo beharko dozula Alkatetza honetan.

Bertaratutakoen kopurua legezkoa ez balitz, bigarren deialdian egingo da batzarra, lehenengorako ipini dana baino 48 ordu geroago.

Igorren 2012ko urriaren 17an.

ALKATEA

GAI ZERRENDA

- 1- Timoteo Atutxa Petralandaren hilketaren 75.urteurrena.
- 2- 2013rako Zerga Ordenantzen aldaketea behin-behinean onestea.
- 3- Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoko laguntza teknikoa eta zerbitzu orokorrak kontratatuko ipintea.
- 4- Dumperra erostea.
- 5- Bizitegitarako uri-lurzoru finkatuko 8-1 egikaritze-unidadearen birmugatzea behin betiko onestea.
- 6- LKS Ingeniería S.Coop. enpresak “Batz S.Coop” merkataritza-Etxearen izen eta ordezkartzan aurkeztutako proiektua (Z-25 Sektorea berriro zatitzearen gainekoa) hasieran onesteari buruz Alkatetzat egin duen Dekretuaren berri ematea.
- 7- Jaustearen ondorioz jasandako kalteengaitik J .O andreak aurkeztu dauen erreklamazioaren espedientea ebaztea.
- 8- Obra-ziurtagiriak.
- 9- Igongailu-instalazioen diru-laguntzak ordaintzea.
- 10- V.L. jaunak aurkeztu dauen idazkia, honegaz lotuta: Santa Luzia auzoan etxeko eskorta-jarduera zuzentzeko neurriak ez beteteagaitik edegitako espedientea.
- 11- Boulderraren mantenurako kontratua.
- 12- Dekretuen barri emotea.
- 13- Eskaerak eta galderak.